

ERREPORTAIA: BEHOBIA-DONOSTIA PRESTATZEN



# Arrasate

UPRESS

1990eko  
Urriak 6  
281. zenb.

ELKARRIZKETA

Jose Mari Loiti

KIROLAK

Zaldibar

Txapelketa  
gertu

KULTURA

Marta Gomez



# Maritxu Kajoi

G e h i g a r r i b e r e z i a





**CLINTON HOLTZ-ek bere saskiratzerik onena lortu du TAKOLOn.  
Zuk ere lor dezakezu!!**



# TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 • ARRASATE • Tfnoa: 79 05 86

### OPEL ASTRA

- Direktio lagundua
- Itxitura zentralizatu
- Leihoak isteko sistema elektrikoa
- Polenaren aurkako mikrofiltroa
- SC-202 radiokaseta, lapurreten aurkakoa ,
- 6 bozeragailu eta funtzio hirukoitzeko pantaila



## AMAGARA

### PHYSIOLIFT



**D**esagertu araztea ia ezinezkoa da. Hala ere, aparatologiako azken berrikuntzek, Azido Glikolikoaren ekintzaren eraginkortasunarekin batera, zimurrak somaezinak izatea lortuko dute.

Eskaintza baliagarria azaroaren 30era arte  
**10 saio + 2 dohainik**

### PHYSIOLIFT + PHYSIOTRANS + AZIDO GLIKOLIKOA

**ZATOZ ORAIN!!**  
Zure adina zure itxurarena da.

## AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 09 09



### LEHEN



### ORAIN





# Odolaren orde, zer?

**G**aur bertan Maritxu Kajoi ospatuko dugun arren, oporrak bukatu dira dagoeneko. Poliki edo azkar joan badira ere, errealitate gordinen murgildu gara berriz, egunerokoan. Batzuk, jadanik lanean, denbora gutxi edukitzeaz kezati; beste zenbait ikasten edo, etorkizunean zer izango duten asmatu ezinik; eta beste asko, langabezian, zeharo amorratuta eta aspertuta, egun luze bakoitza eta gizarte honen hipokresia gorrotatuz.

Bakoitzak bereganako hainbat arduraz izanik, ez al dauka jende kopuru handiago baten probetxurako pentsa eta mugitzeko astirik? Ez dugu aldaketarik nahi, ez zaigu axola?

Ia denaz nazkatuta gaudela, argi dago. Ez dakigu zertan sinistu edo zer ilusio izan. Denaz gara kexu, ezer berririk (hobetu dezakeenik) sortu gabe, odol bero guzti hori, poliki-poliki makalduz. Dagoena onartuz, utopiak alde batera utziaz, benetako konformista bihurtu gara.

Era guztietako hainbat eskubide zapaltzen diren heinean, beste asko zapaltzea errazagoa da, beraz, garaiz mugitu beharra dago, edo beranduegi izan daiteke.

“Gaizki bizi” garelakoan, ez dugu pringatu nahi, eta mugitzen direnak, gure

indiferentzia guztiz insolidarioarekin akatzen ditugu.

Zein gizarte pentsakera da hau, non, ekologiaren alde, Euskal Herriaren alde, ejerzitoen aurka, lan egiteko, bizitzeko, maitatzeko, pentsatzeko, etab.-en eskubi-deak aldarrikatzen dituztenak, marginatuta senti daitezkeen?

Kontsumismoa eta bitzta erraza edo egindakoaren baitan sortutakoa, materialismoa alegia.

Gauzak honela daudela, eta zerbaitek eztanda egingo duenaren esperantzarekin, badaukagu herrian, zenbait lan jorratzeko. Bata, adibidez, azken garaian, azaldutako “inmobilismo” honetaz kutsatua izan den Gaztetxea, hauxe berpiztuz, dinamika berri bat sortzen ari dena.

Hau idazterakoan, lokal horietan obrak egingo diren zurrumurrua zabalitzen ari den arren, ez dugu etsiko, nahi duenari, edozein inizatiba aurrera eramateko aukera eskainiz, eta ahal dugun bitartean, parte hartuz, sortzeko, damutu gabe.

Ustedu daitezela, guztiaz kezaten diren arren, aldaketarik bultzatzen ez dutenak, euren esku baitago, guztion esku.


**IKER BARANDIARAN**

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Mainer Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Ixa-ixa komiki taldea, Alazne Portu. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritziaren erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Jabier Ozaeta



**GATZAGAN,  
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ  
jatetxea**



**OPORRAK  
Urriaren  
9tik 31era  
jatetxea lixita  
egongo da**

**Tfnoa 71 46 08**

**HIES EKIMENA**

**Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.**


**Tfnoa: 79 26 99**



Aldizkari honek Arrasateko  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaureritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du



## Harpidedun: berritu edo oparitu harpidetza!

Arrasatek kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatek kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrantean **2.500 ptako** diru sarrera egin deza-kezu **urriak 20a baino lehen** kontu korrante zenbaki haue-  
tako batean:

- **KUTXA**  
001026694.8  
(Portaloiko bulegoa).
- **EUSKADIKO KUTXA**  
001.002.7600  
(Iturriotz kalekoa).

Ingresoa egitean garbi adiera-zi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS kanpotar bati bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

**77 08 15**

•••••

## Maritxu Kajoi Batzordeari

**M**ariturako egitaraua dela eta, kritika txiki bat egitea bururatu zait. Maritxu Kajoi jaia oso gustoko dut eta baita lan handiz burutzen duzuen egitaraua ere. Eskerrak ematekoa da, urtero-urtero egiten duzuen sakrifizioa Arrasateko herriak eta baita inguruko herriek ere ederto pasa dezagun egun hau. Aldi berean, ondo esan

dut bai: Arrasateko Herriak, pluralean.

Aurtengo egitarauan ere, bai elizari zein partidu politiko konkretu bati, begibistako burla bat ageri da. Ez deritzot txarto jaiegunetan, eguneroko ardurei irain egiteari eta beraiez paso egiteari. Baina bai, iseka horiek beti sektore batera murrizten ditugu. Herri honetan jai guztiak politizatu eta zikintzeko ohitura alua daukagu.

Lehen esan dudan bezala, Arrasateko herria plurala da, eta hemen 25.000 biztan-

le inguru bizi gara. Jende asko ofendituta senti daiteke, iraina beti berdinentzat delako eta ironia sobera jasotzen dutelako manifestazio hauen bidez.

Honekin ez dut polemikarik sortu nahi ez eta erantzunik jaso. Nahi dudan bakarra, datorren urterako, gizarte mugitzen diren instituzio guztiez guztiok barre egin dezagun edo inork ezertaz, marginaziora ez hurbiltzeko.

Jaixetan itxi ardurak etxien eta atara umore ona. Ondo pasau!

**EÑAUT**

### Zuzenketak

- Joan den asteko erre-portaian Auzo-Lagun 6 sailetan banatzen zela zioen, esan behar zuenean lantegi horretan janarien prozesuan iharduten duten 6 sail daudela. Jakina, Auzo-Lagunen sail gehiago dago.
- Auzo-Laguni eskainitako kuadroan, azken aurreko parrafoan, "Gero eta gutxiago egiten da lana era honetan" esaten zen. Erdi-egia da hori, oraindik toki batzutan eusten zaio eta lana egiteko era horri.

### Gutunei buruzko ohar garrantzitsua

Gutunen sailean zure iritziak argiratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan.
- Sinatzailearen izena eta telefonoa adierazi, eta berarekin harremanetan jartzeko modua, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizialez argitaratzea nahi izan. Identifikatu barik datorren gutunik ez da argitaratzen.

Azken aldean jaso dugu baldintza horiek betetzen ez dituen gutunen bat edo beste. Gure aldetik ez dago gutun horiek argitaratzeko eragozpenik, baina bidaltzaileak identifikatzen ez diren bitartean ez ditugu argitaratuko.

### Hurrengo Arrasate Press-a asteazkenean

Egutegiari begirada bat bota badiozue, honez gero konturatuko zineten ostegunean zubi eder bat dagoela. Hala ere, guri buruhauste bat baino gehiago eman-gu digu, aldizkaria asteazkenean banatu beharko dugu eta. Horrek esan nahi du asteartean inprentan egongo dela, eta egiteko denbora gutxiago daukagula; ondorioz ohi baino ale txikiagoa izango duzue datorren astean, baina ohi baino goizago: asteazkenearako etxean!!

## URRATS

### AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

## ITSASKI

### ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

## Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

### SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lilí, 2 BERGARA  
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72


*Bitxori*

*ileapaindegia*

Errebuealta, 10 behea ARRASATE Tfnoa: 79 27 61



# Zer gomendatuko zenuke Maritxu Kajoi bixamonarako?




**Roberto Moreno**  
**Ikaslea**  
**(15 urte)**

Ohera joan aurretik Udalaitzera igo eta gero yogurht bat jan.



**Mila Galañena**  
**Langilea**  
**(36 urte)**

Beste parranda bat egin. Jarraian beste jai batera joan.




**Oscar Custodio**  
**Ikaslea**  
**(15 urte)**

Ohean sartu eta lo egin. Asko edan eta gutxi jatea ere komeni da.



**Leticia Arnaiz**  
**Ikaslea**  
**(17 urte)**

Lotara sartu aurretik litro bat ur edatea. Oso ona da ura edatea.




**Felix Alonso**  
**Langilea**  
**(57 urte)**

Cubata gehiago edan. Edaten jarraitu, goizean jeiki eta cubata bat hartu.



**Elena Kortabarria**  
**Langabezian**  
**(27 urte)**

Lasai hartu egun hori eta mendira joan edo behintzat Arrasatetik kanpora.



**Jose Antonio Nuño**  
**Jubilatua**  
**(71 urte)**

Gauean goiz oheratzea eta ura edo coca-cola edatea. Hori eginez gero ez duzu ajeirik izango.



**Pili Agirrezabal**  
**Langabezian**  
**(25 urte)**

Lo egitea eta kafea hartzea. Dutxa bat hartzea ere ez da txarto etortzen.

## BERGARA PIEL

*Denboraldi hasiera Bergara Piel-en.*  
Kalitate handiko jantziak  
harrituko zaituzten prezioekin!!

Espaloia, 6 • BERGARA • Tfnoa: 76 20 70



- Ordenagailu eta softwarea
- Ploteatze eta eskaneatze zerbitzu berria
- Eta orain **INFORMATIKA IKASTAROAK**

**INFORMATICA ALTO DEBA**

Uribarri Etorbidea, 22 • Tfnoa: 79 64 74 ARRASATE



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Iguualtorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria .....77 03 45  
 • Espezialitateak .....77 05 78  
 77 12 63  
 Ohati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako anbulantziak .....45 87 44

**Udaltaingoa**  
 Ohati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 65  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....088

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 6**

Egunez eta gauzez : Camacho. Bergara.  
 10ak arte: Morales. San Andres.

**Larunbata 7**

Egunez eta gauzez : Puy. Bergara.  
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

**Igandea 8**

Egunez eta gauzez : Puy. Bergara.  
 10ak arte: Español. Iturriotz.

**Astelehena 9**

Egunez eta gauzez : Cuellar. Bergara.  
 10ak arte: Corcuera. Musakola.

**Astearte 10**

Egunez eta gauzez : Estella. Bergara.  
 10ak arte: Irizar. Erguin.

**Asteazkena 11**

Egunez eta gauzez : Mozos Bergara.  
 10ak arte: Amezuza. Santamaina.

**Osteguna 12**

Egunez eta gauzez : Camacho. Bergara.  
 10ak arte: Ruiz. Maala.

**6 OSTIRALA**

• **UNTZILLAKO JAIAK**  
 Gaueko 9etan auzo afaria. Ondoren bertsolariak eta trikitilariak. Bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Trikitilariak: Aintzane eta Goio.

• **MARITXU KAJOI EGUNA**  
 Arratsaldeko 5etan "Auskalo" taldearekin animazioa herriko Plazan. 6.30etan erraldoiak eta buruhandiak. 8etan Maritxuri lore eta kantu eskaintza. 11.30etan "Txinparta" taldearekin dantzaldia. 12etan "Alaska Berri" orkestrarekin dantzaldia. 6etan kaltzontzilo eta kule-oro lasterketa.

• **ARRASATE MUSIKALEKIN KALEJIRA**  
 Maritxu Kajoi egunean Arrasate Musikaleko bandak, Arrasateko gaiteroekin batera kalejira egingo dute arratsaldeko 8.30etan.

• **NAPARTHEID ALE BERRIAREN AURKEZPENA**  
 Napartheid komiki aldizkariaren ale berriaren aurkezpena Gaztetxean arratsaldeko 6etan.

• **GARAPEN PERTSONALA IKASTAROAREN HASIERA**  
 Goizeko 9.45etan eta arratsaldeko 6.45etan ostiralero abenduaren bata arte. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta.

**7 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "El primer caballero" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **UNTZILLAKO JAIAK**  
 Eguerdiko ordubatean meza. Gaueko 10.30etan Lotxo taldearekin dantzaldia. 11etan Murumendi Elkarte XIV. bolo txapelketa.

• **ARTE MARTZIALEN ERAKUSTALDIA**  
 Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeak antolatuta. Musakolako kiroldogan, arratsaldeko 4.30etatik 7.30etara. Bildutako dirua Ruandako errefuxiatuei bidaliko zaie.

**MEDIKUNTZA NATURALARI BURUZKO HITZALDIA**

Medikuntza naturala eta belargintzari buruzko hitzaldia urriaren 17 eta 18an arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Uribarriko Jubilatuei etxeak antolatuta.


**NAPARTHEID KOMIKIAREN ALE BERRIAREN AURKEZPENA**

Maritxu Kajoi eguna aprobetxatuz ostiralean Gaztetxe aurrean Napartheid komiki aldizkariaren ale berriaren aurkezpena arratsaldeko 6etan.

**8 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "El primer caballero" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **UNTZILLAKO JAIAK**  
 Eguerdiko 12.30etan meza eta ondoren Nikolas Gardokirekin dantzaldia.



**"ARRASATE 94 LEHIAKETAK" LIBURUA SALGAI**

AEDko lehiaketetan saridun suertatu ziren lanekin borobildutako Arrasate 94 lehiaketak/Jokin Zaitegi VIII. itzulpen laburren sariketa liburua salgai Hire eta Gorabehera liburudendetan. Prezioa: 1.000 pta.



**PINTURA ERAKUSKETA HARRESIN**

Urriaren 11tik 29ra Valentin Aranaren pintura erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.



**9 ASTELEHENA**

- **ZINEA**  
"El primer caballero" 7etan eta 9.30etan.
- **SALOI DANTZA IKASTAROAREN HASIERA**  
Arratsaldeko 3.30etatik 5.30etara, astelehenero AEDko lokalean. EKIN emakumeak Elkarateak antolatuta.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**  
Euskal Herria Askatu lemapean kontzentrazioa plazan arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.

**10 ASTEARTEA**

- **ZINEA**  
"El primer caballero" 7etan eta 9.30etan.

**BERTSO - ESKOLA BERRIRO ABIAN**

Urriaren 20an berriro jarriko da abian Bertso-eskola arratsaldeko 7etatik 8.30ak arte eta AEDko lokalean (Pablo Uranga, 4 behea). Interesaturik dauden 11 - 15 urte bitarteko gaztetxoak AEDtik pasa daitezke izena ematera edo 77 12 28 zenbakira deitu.

**12 OSTEGUNA**

- **ZINE KLUBA**  
"Fresh" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Zuzendaria: Boaz Yakin. Sarrera: 350 pta. eta gazte txartelarekin 300 pta.

• **MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN**

Pirinioetara (Espingoko Harana, Perdigero) mendi irteera goizeko 7etan Garibaitik, itzulera 15ean. Besaide Mendizale elkarateak antolatuta.

• **UDALAITZ EGUNA**

Irteera goizeko 9etan Udalatik. 11etan meza Udalaitzen, eguraldi txarra eginez gero, 12etan Udalako elizan.

• **3 HAUNDIXEK 3 EGUNETAN**

Urriaren 12, 13 eta 14an 3 handiak 3 egunetan (Aitzgorri, Anboto eta Gorbea), AEDko gazteak antolatuta. Iban Learreta eta Harkaitz Apeirriren memoriale. Prezioa: 3.500 pta, informazio gehiagorako dei egin 77 12 28 telefono zenbakira.

**AISSIALDIAKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI IKASTAROA**

**Txatxilpurdi elkarateak aisialdirako begirale eta zuzendari ikastaroa antolatu du. Baldintzak: 18 urte eduki behar dira begirale ikastaroa egin ahal izateko. Zuzendari ikastaroa egiteko begirale ikastaroa eginik eduki behar da eta 21 urte izan. Ikastaroa osotasunean burutu ondoren, Eusko Jaurlaritzak homologatutako haur eta gazteen aisialdi zuzendari eta begirale tituloa jasoko da. Ikastaroetan parte hartzea nahi izanez gero, joan Txatxilpurdira urriaren 18a baino lehen.**

**UNIBERTSITATERA JOATEKO SARRERA PRESTAKUNTZA**

Unibertsitatera joateko sarrera prestakuntza ikastaroa, Famili eta Gizarte Hezketakako zentruak antolatuta. Egunero 6.30etatik 8.30etara. Informazio gehiagorako dei egin 79 04 59.

**ONGIETORRI AFARIA**

Euskaldunon egunkaria itxura berrituta agertuko da urriaren 21etik aurrera. Egunkari berriari ongietorria emateko afaria antolatu da Euskal Herriko herri askotan. Arrasaten urriaren 20an izango da AED elkaratean eta txartelak erosi ahal izango dira Hire, Mendi tabernan eta AEDn. Prezioa: 2.000 pta.

**MARRAZKI ETA PINTURA IKASTAROA**

**Marrazki eta pintura ikastaroa urriaren 17an hasita, asteartero arratsaldeko 4etatik 6etara Famili eta Gizarte Hezketakako lokalean. Irakaslea: Bingen de Pedro.**

**NAFARROA OINEZ 95**

Urriaren 15ean Nafarroa Oinez Tuteran. Antolatzaileek laguntza behar dute eta AEDk autobusa antolatu du, dohainekoa bertara laguntzera joan nahi dutenentzat. Interesatuok dei egin AEDra 77 12 28 zenbakira edo lokaletik pasa.



**ARTE MARTZIALEN ERAKUSTALDIA**


Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeak antolatuta. Musakolako kiroldagian, arratsaldeko 4.30etatik 7.30etara. Estiloak: Aikido, Judo, Jiu-Jitsu, Karate, Kyokushinkai eta Ninjuesu. 50 partaide baino gehiagok eskainiko dute. Sarrera: helduendako 500 pta. eta gazteendako 200 pta. Bildutako dirua Ruandako errefuxiatuei bidaliko zaie.




“Lagun-Aron dauden kooperatiben artean, azken urteotako lan-istripuen batz bestekoa 900ekoa da. Eboluzioari begiratzen badiogu, mila langileko istripu kopuruan hain zuzen, 1991tik 1993ra beherakada handia gertatu ondoren, 1994ean indizean gorakada esanguratsua gertatu zen. 1995ko datuak ikusita, beldur naiz ranking triste honen errekorrak ez ditugun gaudituko. Eta hor ez dira kontuan hartzen behin behineko langileen istripuak, egunegun ugariagoak, bazkideek baino gehiago izaten dituzte eta. Estatu espainiarra, autonomiak barruan daudela eta gurea ere bai, lan-istripuen liderra da Europa mailan. Uste dut horretan bakarrik dela liderra.

(...) segurtasuna integratzea, kosteekin, produktibitate-arekin, irabaziekin eta salmentekin egiten den modura, negozio ona da, zera esan nahi duelako:

- pertsonen sufrimendua gutxitzea.
- langilegoaren giroa eta egoera hobetzea.
- produktibitatea eta kalitatea igotzea.
- kosteak gutxitzea.
- lantegien irudia hobetzea”.

**Eukeni Olabarrieta**, Iraila. 

“Nire ustez, jubilatua iragana bizi izatek oraina bizi izaten saiatzerako pausua eman behar du. Eta hori oraindik ez da gertatu. Kontuz! ez naiz ari bizi izateko arrazoia duen jubilatuari buruz, hobby-a duenari buruz, ortu bat, zeregin bat... bakarrik dagoen hartaz nabil. Hori da jubilatua garrantzitsua”.


**Roman Balanzategi**, Iraila. 

## Zein da arte martzialen jaialdiaren helburua?

**Z**apatuko jaialdiaren helburua, Ruandako erre-fuxiatuen alde dirua lortzea da. Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeko partaideok, Bukavu izeneko proiektu berri bat dugu eskuartean.

Bukavu Zaireko hiriburua bat da eta bertako auzo batean Ruandatik ihesik joandako 10.000 erre-fuxiatu inguru bizi dira. Errefuxiatu horiek hiru etniakoak dira eta oso egoera txarrean bizi dira. Gure helburua 10 milioi pezeta lortzea da eta diru horrekin eskolak eraiki nahi ditugu Bukavun; zoritxarrez toki horretan denbora luze egon beharko dute eta. Eskolatan goizez ikasteko aukera izango dute gaztetxoek, baina arratsaldean eta gauz nagusiagoek ere ekintza desberdinak egin ahal izango dituzte bertan.

Proiektu berri horretan parte hartzeko aukera Damaso Zuzua atxabaltarrak aurkeztu zigan; karmeldar honek Zairen bederatzita urte pasa zituenez bertan harreman asko ditu. Bukavu proiektuan pare bat urte pasako ditugu lanean eta ekintza desberdinak egingo ditugu dirua lortu asmoz. Horietako bat zapatuan Musakolako kiroldegian egingo duguna da. Arte martzialen sailean Euskal Herrian dauden kirolari onenak etorriko dira, guztira 70. Ikuskizuna paregabea izango denez, jendea hurbilduko dela espero dugu. Sarreran: helduek 500 pta. ordaindu beharko dute eta 18 urte baino gutxiago dutenek 200 pta. Arrasaten, Bergaran eta inguruan zaletasuna badago eta harrera ona izango denaren esperantza dugu.



**Xabier Sarasua**  
Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeko partaidea



*Kalitate gorena leihoretan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



**MARKO-JARTZEAK**

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

*Ikerne Heriz*  
*Estetika Zentrua*

Zarugalde, 54 etxabea  
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56  
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betele iraunkorrak



# Geltoki zaharra bukatu arte Eibarren izango da INEMeko bulegoa

Gutxi barru ospital parean dagoen eraikinean (garai batean tren geltokia izan zenean) edukiko du egoitza berria Deba Garaiko INEMek. Oraindik hala ere, zaharberritze lanak bukatu barik daude eta joan den asteazkenean orain arteko egoitza izan dena hondatuta dagoenez, urriaren 16tik aurrera INEMek Eibarren duen bulegora joan beharko dira langabetuak. Urriaren 16a baino lehen langabetu txartela berri beharrean daudenei ez zaizkie egun hauek kontuan hartuko. Beraz ez da txartela berritzeko arazorik izango.

## Urtebeteko obrak

Geltoki zaharra berritzeko proiektuan INEM, Deba Garaiko Mankomunitatea eta Arrasateko Udala parte hartzen ari dira. Udalak, obra egiteko behar den materiala erosteko eta obren zuzendaritza eramango duen tekniko bat kontratatzeke ardura du (guztira 25 milioi gastatuko ditu). Gestioa Mankomunitateko Garapenerako Agentziak



Urriaren 20rako obra garrantzitsuenak bukatuta izango dira, baina ondoren barrua egokitu beharko da.

darama eta INEMek, langilei ordaintzeko dirua ematen du. Zaharberritze lanak abenduan hasi ziren eta orduan lehenago bukatuko zirela uste bazen ere, oraindik ez dago ziur noiz amaituko diren. Urriaren 20rako lan garrantzitsuenak bukatuta egongo dira, baina gero barrualdea egokitzea faltako da. Hori

dela eta, Udalak eta INEMek lana noiz bukatu erabaki beharko dute. Koldo Azkoitia, Garapenerako Agentziaren arduradunaren esanetan, "langile profesionalak kontratatzen badira falta dena lehenbailehen egingo da. Orain arte egin den moduan, ikasleei lanbide bat ikasten duten bitartean lan egiteko aukera ema-

ten bazaie, denbora gehiago beharko da".

Orain arte Otolara kalean INEMek eduki dituen bulegoak, ARKO erakundearendako egokitzeko asmoa du Udalak. Lokal horien lehen solairuan Arrasate Telebista egongo litzateke eta bigarrenean ARRASATE PRESS eta Arrasate Irratia.


**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11



**Aupa Maritxu!**





Edukiontzia kartoiak bizkor betetzen direlako jarri dute zerbitzu berria.

## Dendaz denda kartoiak batzeko zerbitzu berria

Zaborra uzteko dauden puntuetan kartoi ugari egoten denez eta kalean dauden edukiontzia bizkor betetzen direnez, dendaz denda kartoiak batzea erabaki du Deba Garaiko Mankomunitateak. Horretarako enpresa baten zerbitzuak kontratatu ditu eta kamioi bat arduratzen da kartoiak batzeaz.

Mankomunitateko arduradunek hainbat dendatan zerbitzuaren berri eman eta beharra dutenekin osatutako zerrenda egin dute. Astean bi aldiz, astearte eta ostiraletan, kamioia denda horietatik pasatzen da eta kanpoan utzitako kartoiak batzen ditu. Asteartean lehen saiakera egin zen eta arduradunen esanetan ez zen oso ondo joan, denda-

ri batzuk kartoiak berandu atera zituzten eta. Kamioia Eskoriatzan hasten da lanean eta ondoren Aretxabaletara joaten da. Hori dela eta, Arrasatera ez da ordu zehatz batean helitzen, baina arratsaldeko 4.15etarako atera behar dira kartoiak denda kanpora. Zerbitzu berria erabiltzeko interesa duten dendariak 94- 68 16 810 telefonora deitu behar dute.

Dendetan ezezik, taberna eta elkarteetan ere beira jasotzeko zerbitzua antolatu nahi du Mankomunitateak. Oraingoz taberna eta elkarteekin harremanetan ari dira beharra dutenak zeintzuk diren ikusi eta zerbitzua nolakoa izango litzatekeen azaltzeko.

## Herritarrak haserre PESArekin

Pesak autobusen ordutegi berria aurrez jakinarazi barik indarrean jarri duelako, eta hiruburuetara joan edo hiruburuetatik etorriko diren autobusak Musakolako eta San Andreseko geltokietan geratuko ez direnez, arrasatearrak haserre daude garraio enpresarekin. Batez ere bi geltokiak kendu direlako, jendea kontsumitzaileen bulegora hurbildu da euren kexua azaltzera.

Egoera konpondu nahiez, Zerbitzu Sailak auzia bere gain hartuko du. Diputazioak Pesari kontzezioa orain dela gutxi berri dio baina hori egin aurretik, zerbitzua nola geratuko zen azaltzen zuen txostena bidali zuen Udaletxera. Hala ere, txosten horretan ez zen zehazten bi geltoki kenduko zirenik. Gainera, aldaketek zerbitzuaren hobekuntza ekarriko zutela adierazi zuten Diputazioetik. Hori dela eta Udalak ez zuen alegaziorik egin. Kalteak bai baina onuraren bat ere ekarri du ordutegi aldaketak. Oñatira joateko, adibidez, autobus gehiago izango da.

## —KANPAZAR BILAT AZKEN BELAUNALDIA TEKNOLOGIAN.



### BRavo

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)  
1.6 16v (103 cv, 184 Km/h)  
1.8 16v (113 cv, 193 Km/h)  
2.0 20v (147 cv, 210 Km/h)  
1.9 D (65 cv, 155 Km/h)

ERAKUSKETA:  
Araba Etorbidea, 4  
ARRASATE  
Tfnoa 79 77 66



### BRaVA

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)  
1.6 16v (103 cv, 180 Km/h)  
1.8 16v (113 cv, 190 Km/h)  
1.9 D (65 dv, 155 Km/h)

TAILERRA  
Bizkaia Etorbidea, z/g  
ARRASATE  
Tfnoa 79 41 98










**Pintura ikastaroa** jarri zen abian Monterronen irailaren 18an. Ikastaroa arrakastatsua suertatzen ari da, 90 lagunek eman dute izena eta Amaia Bengoa irakaslearen gidaritzapenean astean bi bider elkartzen dira. Argazkian ikastaroko artista batzuk.



**Maidar Zubillagak** eskuartean dituen perrikutxuak "**Boletus Edulis**" motakoak dira. Bien artean bi kilo eta erdi pisatzen dute

eta bere aitak Tomasek Gatzagako mendi batean aurkitu zituen. Perretxiku ederrak tortillan, plantan edo saltsan jateko!



**Garagartzarrek herri bazkaria** izan zuten domekan, jailetako azken egunean. Bertan jende ugari elkartu zen eta bapojan eta edan ondoren primeran pasa zuten eguna. Gainera bazkalostean gorputzari astindu bat emateko aukera izan zuten Txinparta taldearekin.



**60 urtetik gorako lagun hauek Udalan jaiotakoak dira eta zapatuan meza izan zuten. 40 bat andra-gizon**

**elkartu ziren Udalako elizan eta irteeran argazki bat ateratzeko aukera izan genuen.**

**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana, 12  
ARETXABALETAK**

**BITTORI  
ERRETEGIA**

*Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuleetak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82*





**Bartzelonan izan dira Goikobalu taldekoak astebukaeran. "Orfeon Sants"-ek konbidatuta joan ziren Goikobaluko 65 lagun eta oso ondo pasa zutela jakin izan dugu.**

**Esperientzia errepikatzeko gogoz bueltatu dira. Argazkian Goikobaluko bost neska, han izan zuten afarian: Maider, Sara, Amaia, Izar eta Marijo.**


### IZEN PROPIOAK

● **Amaia Bengoa** 28 urteko Bergararra pintura ikastaroko irakaslea da. Amaiak arte ederrak ikasi zituen Leioan eta pinturan espezializatu zen.

● **Jose Berezibar** Aita Menniko apaiza jubilatua egin da eta bere ordean **Jose Angel Agirre Lizarza** 46 urteko apaiz ataundarra etorri da. Jose Angelek magisteritza ikasi zuen eta Aita Menniko kapelau berria da.

● Auzo-alkate berriak: **Matilde Martin** PSE-EEkoa Makatzenako auzo alkate berria da. **Juan Ignacio Biain** HBekoa Musakolakoa, **Isaias Carrasco** PSE-EE San Andreskoa. **Ismael Gonzalez** (PSE-EE) Uribarrikoa eta **Jose Ignazio Sagasta** (HB) Erdialdekoa.

**Begira zenbat mexikar arrasaten!** diruditen arren, argazkiko parrandazaleak arrasatearrak dira eta horrela jantzi ziren Andoni Magunazelaia eta Miren Ozaeta lagunak agurtzeko. Bikotea bi urterako Mejiko-ko Guadalajara herrira joan da.



**ETXERAT**  
faberna  
*Topa egizu gurean!*

**Memesa**  
**79 42 22**




**Ekin**

Emakumeak • AED


**EKIN EMAKUMEAK** Elkarteak hiruhilabete honetarako antolatutako ekintzak:

Izena emateko edo informazio jasotzeko deitu 77 12 28 telefonora.




**SALOI DANTZA IKASTAROA**

- Egunak: astelehenetan, 3.30etan eta 5.30etan.
- Emalea: Natalio Maiztegi.



**ESKULAN IKASTAROA**

- Egunak: astearteetan, 3.30etan eta 6etan.
- Emalea: Mila Akizu.



**SUKALDARITZA TRADIZIONALA**

- Egunak: asteazkenetan, 6etan.
- Emalea: Mari Tere Altuna.

Eta horretaz gain, hainbat hitzaldi interesgarri eskainiko ditugu. Adi! Ekintza guztiak AED Elkartearen burutuko dira (Pablo Uranga, 4 behe).

**LORAMENDI KIROLAK**-EN

**Zapatila eskaintza berezia!**




Reebok SWIGMAN MID

11.990



Reebok CLASSIC LEATHER

9.995



NIKE AIR DUST

13.900



NIKE AIR AUTHORITY

8.990



NIKE TURMOIL BGS

6.995

**Zatoz**

**eta jaso gure katalogo berria!**



# Maritxu

PRESS

MARITXU KAJOI EGUNA • 1995EKO URRIAREN 6A

## Kokalekuaren auzia oraindik adostu barik

Oraingo ez da Maritxu Kajoi Batzordearen eta Parrokia zaharberitzeaz arduratzen den Batzordearen arteko akordioaren berri emango, oraindik bi aldeek Maritxuren kokalekuaren inguruko akordioa guztiz adostu barik dute eta. Batzordeko partaide batek adierazi digunez, "akordio batera heltzeko borondatea dago eta horregatik jaia amaitzen denean elkarrizketekin jarraituko dugu, baina oraindik azken erabakirik ez dago".

Joan den astean, parrokiako batzordearen partaide batek jailetakoak eurek aurkeztutako proposamen bat onartu zuela jakinarazi zuen. Orduan esan zenez, onartutakoaren arabera datorren urtetik aurrera Maritxuren irudia beste toki batean jarriko litzateke, seguruenik parrokia inguruan.

### AURREKONTUA

1.765.000 pta.ko aurrekontua izango du aurtengo Maritxu Kajoi jaiak. Eskapularioak eta txanpaina salduz eta taberna nahiz jatetxeetan laguntza eskaturik,

Batzordekoek aurrekontuari aurre egitea espero dute. Udalak bestalde, egun horretan herriko pla-

zan jarriko duten eszenatokiaren kostua hartuko du bere gain, gutzira 323.000 pta.



Urtetik urtera gero eta dotoreago jaxten da jendea.

## Zapatuan bederatziruena

Maritxu Kajoi bederatziruena burutu zen joan den zapatuan. Maritxuren irudipean ardoa eta gazta banatu zituzten batzordeko partaideek. Jende asko hurbildu zen mokautxo bat egin eta ardo apur bat edatera. Maritxurako motorrak berotzen joateko aukera ederra!

## Maritxu Santuekin gordeta

Askok honako galdera ibiliko duzue buruan: non pasa ei du urtea Maritxu Kajoi? Argazkian ikusten duzuen bezala, kajoi barruan egon da Maritxu. Baina non? Parrokiaren biltegian, parrokia zaharberitzean kendu diren beste hainbat irudirekin batera. San Antonio, Carmengo amabirjina eta beste santu batzuk izan ditu lagun Maritxuk urtean zehar.



## Aurtengo bertsoak

Ohi denez Maritxurako bertsoak atera dituzte, aurten egitarauan eskapularioan beharrean. Maritxu hauts artean eduki dutela eta bere tokira itzuli nahi zuela aipatzen dute.

## Era guztietako musikaz blai

Arrasateko tabernetan era guztietako musika jarriko dute Maritxu Kajoi egunean. Tabernariak denetik jartzeko asmoa dutela adierazi dute, baina batez ere dantza egitekoa.

## Zerbitzu berezirik ez

Maritxu Kajoi dela eta Ospitaleko larrialdi zerbitzuan ez dute neurri berezirik hartuko. Izan ere, bertan aitortu zuten, iazko Maritxu urteko gauerik lasaieratariko bat izan zen.



## Menu bereziak gau berezi baterako

Orain arte afaririk enkargatu ez baduzue eta bapatean konturatu bazarete Maritxu Kajoi jaia dela, eta ospatzea merezi duela, alferrik deituko duzue Arrasateko jatetxeetara toki eske. Izan ere, aste bi lehenagorako herriko jatetxe guztietan, jangeletako tokia hartuta zegoen. Inguruko herrietara jo beharko duzue, eta hala ere nahikoa lan tokia aurkitzeko.

2.000 eta 5.000 pta. ren artean mugitzen dira Maritxu Kajoi-


rako bereziki jarritako menu desberdinak, kalitatearen eta kantitatearen arabera noski. Horretaz gain, enkarguz egindako menuak edo kartatik jateko aukera eskaintzen dute jatetxe gehienek.

Otarteko edo konbinatuena aldeko apostua egiten baduzue, hor bai izango duzuela tokia aurkitzeko aukera, baina ohi baino denbora gehiago itxaron beharko duzue, kanpotar gehienek eta gazteenek hortik jotzen dute eta.

## Aurten lora-saltzaile gutxiago

Nork ez du Maritxu arratsaldean ikastetxeetako umeez saltzen dituzten paperezko lorarik erosi? Dena den, aurten lora-saltzaile gutxiago ibiliko da kalean, SFX eta San Viatorreko ikasleek ez dituzte salduko eta. Ikastola hauetan O.H.O 10. mailara arte luzatu da eta baita ikas-bidaia ere. Dirudienek, 10. mailakoak ez daude paperezko lorak egiten denbora galtzeko prest.

Lorak egiten eta saltzen jarraituko dutenak beraz, Musakola eta Erguingo eskoletako ikasleak dira eta salmentatik ateratako dirua ikas-bidairako gordeko dute. San Andres herri-eskolako ikasleek aspalditik pegatinak saltzen dituzte: Ikasle bakoitzak marrazki bat egiten du eta guztien artean hiru aukeratzeko dira. Marrazkiak pegatina bihurtzen dituzte, gero saltzeko.



San Andres herri-eskolako 8. mailakoek pegatinak salduko dituzte.

## RAMON BIDABURU "TXARRA"

# "Maritxu jaia antolatu genuen horrelako arrakatarik ez"

**Ramon Bidaburu, "Txarra" ezizenez ezaguna dena, Maritxu Kajoi jaiaren asmatzaileetarik bat da. Arrasatear horren esanetan, jaia ez zuten botepretoa asmatu, baina ez zuten espero horrelako indarririk hartuko zuenik.**

— Zelan bururatu zitzaizuen Maritxu eguna sortzea?


— Zenbatetan kontatu izan ote dugu hasiera zelan izan zen! Beno, ba Pepe Txantxotek betik amabirjinen aurretik pasatzean ardo bat eskaintzen zion eta jaia prestatzea pentsatu genuen.

Gure asmoa herrirako jai bat antolatzea zen.

— Pentsatu zenuten jaiak horrelako indarra hartuko zuenik?

— Gure asmoa jarraipena izango zuen jaia antolatzea zen baina ez genuen horrelako arrakatarik espero. Lehenengo urteetan jende gutxi jantzi zuen trajea eta ez genekien jaiak iraungo zuen.

— Zelan eman zenuten jaia ezagutzera?



— Kuadrilaz kuadrila jaiaren berri eman genuen. Arrasatearrek dako izango zen jaia nahi genuen eta horregatik ez genuen propaganda berezirik egin.

— Zein giro izan zen lehenengo Maritxun?

— Jende gutxi jantzi zuen gorbata baina txikiteoan hasi ginen eta apurka-apurka jendea animatu joan zen. Lehenengo urtea polita

## Batzordea gero eta handiago

Hogei lagun inguruk osatzen dute aurtengo Maritxu Kajoi Batzordea, era horretan azken urteotako antolatzaile kopurua gaintuz. Maritxu Batzordea osatzen dutenen artean, oraindik hasierako 5/6 lagun hor daude eta beste hainbeste berri sartu dira aurten. Gainontzekoak jaiaren azken urteetan sartutako bolondresak dira. Jakina denez, Batzorde honetako partaide izateko lanerako gogoia eta borondatea besterik ez da behar.





## genuenean ez katarik espero"

izan zen antolatzen ibili ginenonda-ko. Oso ondo pasatu genuen.

— Hainbat urteetan kanpoan izan zara. Jaiarekin akordatzen zinen?

— Urtero akordatzen nintzen eta batzutan gure erara ospakizun txiki bat egiten genuen.

— Iaz bueltatu zinenean, zer iruditu zitzaizun jaiak?

— Giro aldetik lehengoentzerakoa baina orain askoz ere jende gehiago etortzen da. Hala ere entzunda nuen jende larregi ibiltzen dela.

— Zelan ospatzen duzu Maritxu?

— Dotore jantzi, lagunekin bildu, txikiteoa egin, afaltzera joan eta gero kalean ibili. Jende gehienak egiten duena egiten dut.

— Jaiak beti polemika ekarri du. Oraingon tokia dela eta. Zer iruditzen zaizu?

— Nire ustez Maritxu han edo hemen jartzeak ez du garrantziarik. Beti egon den tokia oso aproposa da lore eskaintza egiteko, baina bila daiteke beste toki bat.

## Etxabe gogoan

Aurtengo Maritxu Kajoi Baztordekoek egitarauan Iñaki Etxabe gogora ekarri nahi izan du. Izan ere, orain hogeitau urte betetzen dira talde ultras kuindarrek Kanpazar gainean erahil zutenetik.

## Maritxuko jantziak: 7.000 pta. eta 15.000 pta. artean

Dendarien ustez, gero eta gehiago dira Maritxun jantzia egin edo erosten dutenak.

Nesken soinekoaren koloreari dagokionez, kolore beltzak nagusi izaten jarraitzen du. Jostundegietara jantzia egitera doazen neska gehienek kolore beltzeko ohiak eraman dituzte eta oihal dendetan ere, oihal beltzak saltzen dira gehienbat.

Soineko luzeak motzak baino gustokoago ei dituzte Arrasatearrak. Lotsagatik edo agian hotzagatik, gau handi horretan soineko luzeak ikusten dira batipat.

Soineko berria egiten duten neskek, batzate beste 10.000 pta. gastatzen dute, beti ere ohiak eraman eta soinekoaren zailtasunaren arabera; eta erosi baino, jen-



deak egin egiten ditu soinekoak.

Eritzi berekoak dira gaueko soinekoak egiten eta saltzen dituzten Gasteizko denda bateko jabeak: hauek diotenez Gasteizeko eta inguruko jende asko hurbiltzen da beraiengana soineko beltz eta luzeak egiteko edo erosteko. Den-

da honetako arduradunek aipatzen dutenez, jendeak 7.000 eta 15.000 pta. inguru gastatzen du.

Mutilen jantziari dagokionez, korbata-dun jantzi urdin ilunak erabili izaten jarraitzen du, nahiz eta pajarita ere asko erabiltzen den.

## Mirariak urtetik urtera

**1981.** Ura ardo bihurtu zen, plazako iturrian.

**1982.** Su-jausia.

**1983.** "Marijaia" etorri behar zen, baina uholdeak gertatu zirenez ez zen iritsi.

**1984.** Hortensia hurakana pasatu zen eta ez zen ezer gertatu.

**1985.** Lehortea. Ofrendan euria egin zuen.

**1986.** Maritxuk txaranga zuzendu zuen bere eskumako eskua mugituta.

**1987.** Maritxu "torero".

**1988.** Kondoiak bota ziren.

**1989.** Ez zen milagrorik izan arazo teknikoengatik.

**1990.** 1000 pta.ko bileteak erori ziren zerutik.

**1991.** Arrasateko NAN-a.

**1992.** Arkuarekin gezia bota eta honek su-jausia piztu zuen.

**1993.** Kajoi gainean bideo-kamara.

**1994.** Maritxu bere tokian egotea.

**1995.** ?

## Egitaraua

**Goizeko 8etan:** Etxafleruak.

**Arratsaldeko 5etan:** Gazte-txoendako Auskalo taldea Herriko Plazan.

**6.30etatik aurrera:** Erraldoi-ta buruhandiak, gaiteroen, aurtun 25. urtemuga betetzen duen Elgoibarko Mauxitxa txaranga.

**8etan:** Maritxuri lore eskaintza.


**11.30etan:** Txinparta taldea Seberon.

**12etan:** "Alaska Berri" taldea Herriko Plazan.

**Goizeko 6etan:** Zeziaganetik hasita, kantzontzilo eta kule-ro lasterketa



**ZUK  
NAHI  
TABERNA  
MARITXUN  
MARTXA  
ETA  
BORROKA!**





## Txanpaina eta eskapularioa: ezinbestekoak

Joan den asteburutik salgai daude Mari-txu Kajoi txanpaina eta eskapularioak ere.

Txanpanari dagokionez, hamabi boti-lako kaxak 8.100 pta. balio du eta Mari-txu Komisioko partaideei eskatuta lor daiteke. Txanpaina, azken 6 urteetan bezala, Codorniu enpresa kataluniarre-tik ekarri da. Guztira 250 kaxa ekarri dira Sant Sadurní D'anoiatik, 3.000 botila beraz.

Eskapularioak duela egun batzu-tatik salgai daude ere eta komisi-oekoin harremanetan jarrita lor dai-tezke. Aurtengoek, aurreko gaztiek ez bezala, argazkia daukate atze-ko aldean eta ohiko bertsoa jai egi-tarauan agertzen da.

Eskapularioa ezin lortu izan duzuenok, baduzue oraindik aukerarik: Arratsaldeko 7etatik 10etara bitartean salgai egongo dira Monten, Arbolapetan, Parro-

kia ondoan eta Sebero Altu-be inguruan jarriko diren postuetan. Prezioa, betikoa: 200 pta.



## Bixamona nola kendu?

Bixamona lehen bait lehen kentzeko, likido kantitate ugari edatea komeni da; bereziki, fruitu eta landareen zukuak izaten dira lagungarrienak. Buruko mina arintzeko, aldiz, ez dago aspirina bat hartzea bezalakorik.

Bart gehiegi edan baduzu, ziurrenik lur jota sentituko zara gaur. Normala da, alkohola edaten dugun bezain pronto, odolean disolbatu eta gorputz guztian zehar zabaltzen da. Horregatik dauzka eragin hain nabariak kantitate handian kontsumituaz gero.

Alde batetik, nerbio sistemako zelulak deusezten ditu, eta bestetik, gibela gehiegizko ahal-egin bat egitera behartzen du, bere ohiko lanetan aritzen utzi barik. Honela, beharrezkoak ditugun gibelaren zenbait funtzio, gelditu edo polikiago burutzen dira, egonezin orokor bat eraginez.

Egoera horretatik aurrera zer

egin? Gorputz txar hau kentzeko, likido asko edatea da ona, batez ere landare eta fruitu batzuen zuku hartzea. Mahatsen zukuak, adibidez, gibelean ematen den alkoholaren metabolismoa azkartzen du, daukan fruktosa kantitate altuagatik.

Hala ere, elikagai solidoak jatea ere gomendagarria da (ez egin baraurik), proteina falta baldin badugu bereziki, polikiago metabolizatzen baita hartutako alkohola.

Buruko minaren aurka, aspirina batekin nahikoa izaten da.

Edozein modutan, erremedioa bilatu baino hobe izan ohi da aurretik neurriak hartzea. Horrela bada, aurreko egunean edaten dugun alkohol kantitatea kontrolatzea baino hoberik ez dago.

**MAIDER NUIN**

*Elikagaien Zientzia eta Teknologian Lizentziatua*

Gurea  
bai giroa  
Maritxun!



**ILUNTZ**  
taberna

Olarte, 8  
Tfnoa: 79 20 26

**ITURRIOTZ**  
taberna

Iturriotz, 7 • Tfnoa: 79 16 04 ARRASATE



● *Jose Mari Loiti*

# Bigarren aldiz Mankomunitateko buru

**Azken lau urteotan Mankomunitateko lehendakari izan ostean, orain dela gutxi egin zen eraketa batzarrean berriz ere kargu bera betetzeko aukeratu zuten Jose Mari Loiti. AKEIri irtenbidea aurkitu behar zaiola eta, legealdi garrantzitsuari egin beharko dio aurre 57 urteko arrasatear honek.**

— Mankomunitateko karguak hirukoaren eskuetan geratu dira.

— Hirukoak hitzartuta duena kontuan izanik eta alderdi bakoitzak duen ordezkariaren arabera, EAJko lehendakaria, EAKo lehendakariordea eta PSE-EEko diruzaina aukeratu genituen.

Akordioa egon zen hirukoia osatzen dugunon artean, nahiz eta batzuk botorik eman ez. Gai hori gaizki ulertu eta botoren bat falta izanenez hirukoak huts egin zuela esan dute batzuk, baina kontua da hirukoak aurrera egin zuela. Ez da beharrezkoa hirukoaren barruan gauden guztiok botoa ematea. Helburua betetzen bada akordioa ere bete egingen da.

— Mankomunitateko lehendakaria zara baina Uda-

lean ez duzu kargurik. Hori oztopoa izan daiteke?


— Mankomunitateko estatutuen arabera, Udalek izendatutako arteko edonor izan daiteke Mankomunitateko lehendakaria. Arrasateko gobernuan egon beharra ez dago. Zinegotzi eta ordezkari izatearekin nahikoa da. Bestalde, Mankomunitatean gauden guztiok Udaleko partaide gara eta gobernu batzordean ez egonda ere, barruan dauden beste lan egin dezakegu.

— Mankomunitateak autonomia kentzen die Udalei?

— Kontua ez da kentzea. Nire ustez, gauzak hobeto egiteko Udalak batzea komeni bada, horrela egin behar da; baina horrek ez dakar Udalen autonomia gutxitzea.

— AKEIri irtenbidea aurkitu beharko zaiola eta, legealdi hau garrantzitsua izango da.

— Mankomunitatean zerbitzu asko ematen da baina 96 aren bukaeran AKEI itxi egin behar da eta hango egoerari irtenbidea aurkitu beharko zaio. Ez da bakarrik legezko arazoa, lekukoa ere bada. Gaur egun alternatiba desberdinak daude baina etorkizunari begira hondakinen arazoaren aurrean Gipuzkoan



zein irtenbide adosten diren jakin behar dugu. Irtenbide egokiena bilatzeko gai izan beharko dugu baina irtenbidea etorkizuneko izan beharko da. Garapeneko Agentziari dagokionez, eskola porrota lagundu eta egitasmo enpresarialak bultzatu behar ditugu. Horretarako Lantegi Eskola, Lanbide Hastapena, Gai-kuntza Okupazionala, Multimedia programa, Turismo proiektua eta egitasmo berriei laguntza ematen jarraituko dugu. Emakumeei zuzendutako lanbide etxeak ere antolatu nahi ditugu.

— Ingurugiroaren alorrean zer egiteko asmoa dago?

— Gaur egun hainbat aha-lerin egiten ari gara: zoru kutsatuen inbentarioa, hondakinak gutxitzeko plana, industrien isuriketa plana... Aurrera begira, Mankomunitatearen zerbitzuak ezagutzera

emango dituen herritarren kontzientziazte plana hasiko dugu. Ingurugiroari buruzko heziketa ere emango dugu eta zerbitzu berrien inguruko kanpainak egin.

— Zeintzuk dira lehendakariaren eginbeharrak?

— Juntarekin batera etorkizunari begira programa bat egiten ahalegindu, zerbitzuen funtzionamendua ziurtatu, eta juntak berak jarri dituen helburuak bete artean bultzatu. Horrez gain, diru iturriak bilatzen ere saiatu beharko naiz.

— Gainontzekoek zelan parte hartzen dute?

— Gobernu bilerak hilerro egiten dira eta parte hartzea ona izaten da, baina batzorde informatiboetara ordezkari gutxi azaltzen da eta hori aldatzea lortu nahi dugu. Bestalde, Mankomunitatea herritarren zerbitzura dago eta herritar guztien ideiak edo kezkek ongi etorriak izango dira. Denon artean lortu behar dugu Deba Garaiak aurrera egitea.

● **“Estatutuen arabera udalek izendatutako ordezkarien arteko edonor izan daiteke Mankomunitateko lehendakaria”.**



# Behobia-Donostia

## Estatuko Herri lasterketarik jendetsuena

Itxaro Zubillaga

**Behobia-Donostia 20 kilometroko herri lasterketa ospetsua eta arrakastatsua bihurtu da azken urteotan. New Yorkeko maratoi txikia deitzen diotenenek badute arrazoirik, 8.000 korrikalari biltzea ez da eta nolanhiko gauza. Muga hori erraz gaindituko du azaroaren 12an burutuko den 31. edizioak.**

**A**rrasatear askok eta askok hartzen du parte proba horretan eta dagoeneko hasi dira prestaketetan. Trenbidera, Aramaio alderantz edo Urkulura joatea baino ez dago zenbat korrikalari dabilen ikusteko. Kamiseta, zapa-tilla eta fraka motzetan iserdiak dariela ikusten diren gehienek helburua Behobia-Donostia herri lasterketa ondo prestatzea da. Arrasateetik urtero 150 lagun baino gehiago joaten da azken urteotan hain arrakastatsua bihurtu den lasterketara eta aurten kopuru hori gainditzea espero da. Lasterketa joateko aurrez izena eman behar da eta Arrasaten Loramendi Kirolak dendan dago horretarako aukera.

### LASTERKETAREN HISTORIA

Donostiako Fortuna taldeak 1919an jarri zuen abian lehen aldiz Behobia-Donostia lasterketa. Garai hartan amateurren eta diruagatik korrika egiten zutenen arte-



150 arrasatear baino gehiagok hartuko du parte Behobia - Donostia herri lasterketan.

an arazoak zeuden. Amateurrek ez zuten ulertzen nola zen posible diruaren truke korrika egitea. Lehen lasterketa, beraz, ideia bat eta bestearen defendatzaileen arteko lehia moduan antolatu zen. Herri lasterketak bigarren etapa bat ezagutu zuen 1940. urtean. Orduan erreleboka egiten zen, lau korrikalarik osatutako taldeek hartzen zuten parte. Herri lasterketa izaera 1979an hartu zuen. Ordutik gaur arte partaidetza kopurua izugarri igo da. 1000 partaide izatetik 8.000-ra heldu da.

### NAZIOARTEKO LASTERKETA


Behobia-Donostia, dagoeneko, nazioarteko lasterketa bihurtu dela esan daiteke. Euskal herriko korrikalariez gain,

estatukoak, frantziarrak eta Alemaniakoak etorriko dira bertara. Iparraldetik eta Frantziatik urtero 2.000 lagunetik gora hartzen dute parte lasterketan eta aurten Kataluniako sei autobus eta alemaniatik pare bat ere etorriko dira. Guztira 10.000 dortsal prestatu dituzte Fortuna taldekoek eta 9.000ko kopurua gaindituko delakoan daude.

Behobiatik Donostiaraino doan maratokia irekia da, hau da, ez dago diru saririk ezta dietarik ere. Jendeak gehienbat prestigioagatik hartzen du parte. Baina saririk ez badago ere, izen handiko korrikalariek izaten dira bertan. Ibilbideak ez du aldaketarik ezagutu azken boladan. Hasieran Errenderitik pasatzen zen, baina Nazional 1

errepideko trafikoa ekiditzeko Gaintxurizketara eraman zen. Hortik, Lezoko bidea hartuz Pasaia zeharkatzen du. Horrelako lasterketa bat antolatzea ez da gauza samurra izaten eta are eta gutxiago partehartzaileen kopurua kontuan hartuta. Antton Duke Fortunako antolatzailearen esanetan euren ardura handiena dena puntuan izatea da "Gero eta jende gehiagok hartu du parte eta antolakuntzako aurrekontua asko igo da. Ibilbidea kontrolatzeko eta jateko tokietan ura, laranjak etab. banatzeko jendea behar dugu, horrek guztiak laguntzaile asko eta antolakuntza egokia eskatzen du. Gero egin behar den paper-nahaste burokratikoak ere lan astuna izaten da".





## Iñaki Telleria

**Iñaki Telleria arrasate-arrak lau bider hartu du parte Behobia Donostian herri lasterketan, aurten beraz boskarren aldia izango da.**

**-Zerk bultzatuta hartzen duzu parte?**

- Niretzat lasterketa hori egunero korrika egiteko aitzaki bat da. Gainditzeko erronka bat dudanean gustorago joaten naiz entrenatzera. Helburua

hasi eta bukatzea da, ez noa marka izugarriak egitera, ezta lehenengo postuetan sartzerare ere. Aurten behobia Donostia ordu eta érdian bukatu nahi dut eta lortu ezkeror, hori da nire saria. Kirola egiten urte osoan ibiltzen naiz baina herri lasterketara joateko gogor entrenatzen irailan hasi ginen bi lagun eta hirurok.

**-Behobia Donostia nola dago antolatuta?**

- Oso ondo. Irteeran jende gehiegi egoten da eta denbora asko galtzen duzu baina gainontzekoa ondo egoten da. Gainera arropak eramateko autobusak antolatzen dituzte eta bukaeran dutxak ere izaten dira.

**-Anekdotarik?**

- Duela hiru urte desiratatu egin nintzen eta Gurutze Gorrian bukatu nuen. Txarto pasa nuen benetan.

## Fatima Aranzabal

**Fatima Aranzabalek bi urtetan hartu du parte Behobia-Donostia herri lasterketan. Aurten asko entrenatu ez duen arren, berriz joateko asmoa du Miren Bengoa arrasatearrekin batera.**

**-Zerk bultzatuta hartzen duzu parte?**

Betidanik egin dut korrika nire kasa. Behin parte hartzeko gonbidatu ninduten eta zalantza batzuren ondoren, joatea erabaki nuen. Lehen aldia asko gustatu zitzaidan, batez ere zegoen giroagatik. Lasterketa osoan sekula ez zara bakarrik egoten, era guztietako jendea aurkitzen duzu. Ikusleak ere non nahi izaten dira eta animo handiak ematen dituzte, batipat emakumeei. Gainera gu bezalako jende askok hartzen du parte, erabat lasterketa herrikoa da. Beste batzuk ez



duten zerbait berezia du, gustora egotea sentiarazten zaituena. Nire helburua ez da marka bat haustea; hasi, bukatu eta ondo pasatzea.

**-Noiz hasten zara prestatzen?**

- Urte osoan egiten dut kirola, astean bi edo hiru bider gutxienez. Udan bizikletan ibiltzen naiz eta baita mendian ere. Baina Behobia-Donostia gaur prestatzen hiru hilabete lehenago hasten naiz.

# Zenbait aholku lasterketarako

**Horrelako lasterketa baten aurrean zenbait aholku jakitea ez da txarto etortzen. Kontuan hartu beharrekoak kontuan hartzeko Alberto Garai sendagilearekin izan gara:**

• Behobia Donostia moduko lasterketa batek urte osoko lana eskatzen du. Azken hiru hilabeteetan topera entrenatzea eta urtean zehar ezer ez egitea txarra da osasunerako. Pertsonaren ahalmena kontrolatzeko kirola egin behar da urte osoan eta azterketa medikuak pasatzea ere komeni da, are eta gehiago pertsona adinekoa bada.

• Aste batean ezin baduzu entrenatu, hurrengoan ez egin ariketa doblea. Ez du ezertarako balio. Betiko erritmoa jarraitu.

• Dieta orekatua jan behar da, dene-

tik baina neurtuta.

• Lasterketa hasi baino lehen beroketa ariketak egin behar dira eta behin bukatuta luzatze ariketak. Lesioak ez izateko nahi eta nahiezko baldintza.

• Lasterketan zehar indarrak neurtzea komeni da. Erritmoa kontrolatu hasieratik berehala ez nekatzeko.

• Lasterketa egunean ez estreinatu kamiseta, fraka eta zapatilla berriak. Gorputza ohituta dagoen arroparekin egin korrika. Fraka motzetan korrika egiten bada hanka artea ez erretzeko baselina eman eta baita besapean ere.


• Lasterketa baino hiru ordu

lehenago jan. Hiru orduko epea betetzea garrantzitsua da: pajarak eta botaka gura ekiditzeko.

• Ez da komenigarria lasterketa aurreko gauean eta goizean asko jatea. Normal jan behar da eta ur asko edan.

• Lasterketa bukatzean bazkari gogorra egiteko joera dago. Kontuan hartu behar da gorputza nekatuta dagoela eta orduan hasten dela erreku-peratzen, beraz, bazkariak arina behar du izan, ur eta gatz askokoa. Ospakizunak gauean egitea hobe.

• Lasterketa hasi eta ondo bukatzea da helburua. Kirola eginez gozatu eta bide batez osasuna zaindu.





# Biharamonarekin batera Zaldibar futbito txapelketa hasiko da

**Z**aldibarko frontoia eta Iturripeko kantxak bizitasun berezia hartuko dute larunbatetik aurrera. Zaldibar 95-96 futbito txapelketa hasiko da urtero bezala, Maritxu kajoi biharamonean. Aurten iaz baino zortzi talde gutxiago izango dira: 72 guztira; baina jokalarari gehiago, 1231. Izan ere talde batzuk bat egin dute.

Arauei dagokienez, ez dago nobedaderik. Lehen fasean taldeek epaituko dituzte neurketak eta bigarrean antolakuntzak jarriko dituzte epaileak. Faboritoek ere horixe jarraitzen dute baina aurten iazko txapelkunak, Zuloakek ez du parte hartuko. Itxura denez adina gehiegi gertzen da!

18 ekipoko lau talde egin dira eta partidu bakanen ligan jokatu da lehen fasea astebururo, otsaila arte.

## Larunbata 7

### Zaldibar

|       |                                     |
|-------|-------------------------------------|
| 8.50  | Sokoakoak - Alealee                 |
| 10.00 | Ojo Avisore - Berando sukaldeak     |
| 11.00 | Exc. Lete - Pub People              |
| 12.00 | Los Heredia - AC Surcos             |
| 13.00 | Const Fercon - No Comment           |
| 14.00 | Kakajauri - Arrasate Kirolak        |
| 15.00 | Adelaida Haizea - DKB               |
| 16.00 | Resakas - Zotz Motz                 |
| 17.00 | MSM Inge Integral - Petroleros      |
| 18.00 | Orlando Piratas - Sortu informatika |
| 19.00 | Irati STS - A ti que te importa     |

### Iturripe A

|       |                                 |
|-------|---------------------------------|
| 12.00 | Toss Tehaman - Gaztetzokoa      |
| 13.00 | Anbotoste - Insert Coin         |
| 14.00 | Fosforos - Kopyprest            |
| 15.00 | Kinito Team - Artzankos Udalaiz |
| 16.00 | Betrayer - Potrosorri           |
| 17.00 | Elisabeth - Borrock Roll        |
| 18.00 | Baneuko - Koka Juniors          |

## Iturripe B

|       |                             |
|-------|-----------------------------|
| 12.00 | D.A Iriztu - Kamasutra      |
| 13.00 | Kirten tropel - Lorategi    |
| 14.00 | Cerv Leintz - Perrahotsa    |
| 15.00 | Txarokis - Arrasate Zoo     |
| 16.00 | Gualtrapas - Frantziskanerr |
| 17.00 | Pepelus - Aurrera Bolie     |
| 18.00 | Altza Porru - Los Dalton    |

## Igandea 8

### Zaldibar

|       |                                  |
|-------|----------------------------------|
| 8.50  | Okoretegi Taberna - 6° Proiektua |
| 10.00 | Ganbelas - Lautherbrunnen        |
| 11.00 | Jotakabau - Uglys Txinato        |
| 12.00 | Argi Ibili - Bukanak             |
| 13.00 | Leya - Ke oxtias                 |

### Iturripe A

|       |                           |
|-------|---------------------------|
| 11.00 | Nuevo taberna - Los Dimy  |
| 12.00 | Fraguel Gol - Aizpun Bila |
| 13.00 | Txeyenex - Hirei          |

### Iturripe B

|       |                           |
|-------|---------------------------|
| 11.00 | Danok Lagun - Kriskibalda |
| 12.00 | Tronkoteak - Totem        |
| 13.00 | HMKL - Trikiti            |

## Zaldibar 95 Txapelketako taldeak

### A taldea

- 1 - Kakajauri
- 2 - Arrasate Kirolak
- 3 - Argi Ibili
- 4 - Bukanak
- 5 - Orlando Piratas
- 6 - Sortu Informatika
- 7 - Toss - Tehaman
- 8 - Gaztetzokoa
- 9 - D.A Iriztu
- 10 - Kamasutra
- 11 - Tronkoteak
- 12 - Totem
- 13 - Gualtrapas
- 14 - Frantziskanerr
- 15 - Jotakabau
- 16 - Uglys Txinato
- 17 - Sokoakoak
- 18 - Alealee

### B Taldea

- 1 - Los Heredia
- 2 - A.C Surcos
- 3 - Ojo Avisore
- 4 - Berango Sukaldeak
- 5 - Txeyenex
- 6 - Hirei
- 7 - Fraguel gol
- 8 - Aizpun Bila
- 9 - Adelaida haizea
- 10 - DKB
- 11 - Fosforos
- 12 - Kopyprest
- 13 - Kirten Tropel
- 14 - Lorategi
- 15 - Altza Porru
- 16 - Los Dalton
- 17 - Okoretegi taberna
- 18 - 6° Proyecto

### D Taldea

- 1 - Const Fercon
- 2 - No Comment
- 3 - Anbotoste
- 4 - Insert coin
- 5 - Betrayer
- 6 - Potrosorri
- 7 - Nuevo taberna
- 8 - Los Dimy
- 9 - Ganbelas
- 10 - Lautherbrunner
- 11 - Elisabeth
- 12 - Borrock Roll
- 13 - Irati STS
- 14 - Ati que te importa
- 15 - HMKL
- 16 - Trikiti
- 17 - Txarokis
- 18 - Arrasate Zoo

### E taldea

- 1 - Exc Lete
- 2 - Pub People
- 3 - Resakas
- 4 - Zotz Motz
- 5 - Pepelus
- 6 - Aurrera Bolie
- 7 - MSM Ingenieria
- 8 - Petroleros
- 9 - Danok Lagun
- 10 - Kriskibalda
- 11 - Kinito Team
- 12 - Artzankos Udalaiz
- 13 - Leya
- 14 - Ke Oxtias
- 15 - Baneuko
- 16 - Koka Juniors
- 17 - Cerv Leintz
- 18 - Perrahotsa



# Urbina Maltzaga eta Mondrak etxean jokatu dute

Urbina Maltzagak EBA ligako liderraren bisita jaso du domekan arratsaldeko 6etan Iturripen. Breogan taldeak jokatu dute neurketa biak irabazi ditu eta 4 punturekin sailkapeneko aurreko tokian dago. Galziarrak ACB ligatik jaitsi berriak direnez, esperientzia eta sendotasun handiko taldea osatzen dute. Favorito titulua daramate gainean eta orain arte erakutsitakoa ikusita, badirudi zer esan asko eman dezaketela aurten.

Samaniegok jokalaria guztiak kantxaratzeko gertu ditu. Alvaro Cocak bizkarrean zuen lesioak onera egin du eta han izango da domekan. Iñaki Gomez eta Pedro Rodriguezek asteartean Basconia-ekin jokatu zuten YMCA



Iturripen eta Atxabalpen izango da kirola nagusi domekan.

Lahti talde finlandiarren aurka Europako kopako neurketa, baina domekarako Arrasaten izango dira. Urbina Maltzaga taldearentzat partidua gogorra izango da, baina ahalegin berezia egin behar du denboraldiko lehen

garaipena lortzeko, puntu premian dago eta.

## Mondrak nahi eta nahiez irabazi behar

Mondra eta Balmaseda izango ditugu nor baino nor Atxabalpen igandean arra-

tsaldeko 4.15etatik aurrera. Denboraldiko 6. neurketa izango da eta Mondrak irabazi egin behar du nahi eta nahiez. Arrasateko taldeak galdu egin ditu neurketa guztiak eta puntu barik sailkapeneko zuloan dago. Hortik irtetzeko domekako partidua irabaztea garrantzitsua izan daiteke, lehen puntuak lortzeaz gain, jokalarien animoa igotzeko balioko luke eta. Balmasedak 5 puntu ditu eta sailkapeneko 15. tokian dago. Bi partidu galdu ditu, beste bi berdindu eta bakarra irabazi.

Mondrako emakumeek ostera, Donostiako Alde Zaharra taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak domekan eguerdiko 12etan Donostian.



## Arrasate atletiko taldeak

Arrasate atletiko taldeak 95-96 denboraldiko aurkezpena egin zuen zapatuan. Taldean 63 korrikalari daude, 48 nagusi eta 15 infantil. Entrenatzaileak lau dira: Lorentxo Avila abiadura, fondo ercia eta jauzietaz arduratzen da. Jose Luis Unzuetak jaurtiketak lantzen ditu. Santi Perez maratoi eta fondoko arduraduna da eta guztien koordinatzailea Fernando Zufiria. Iazko denboraldian Arrasate Euskadiko 6. geratu zen eta taldeka Gipuzkoako 4.a. Aurten berriz, Gipuzkoako, Euskadiko eta Espaniako Txapelketetara joateko beharrezkoak diren denborak lortu nahi dituzte eta era berean taldeka Euskadiko eta Gipuzkoako lehenak gelditu.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Off: eta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

*Yo a z oinetakoak*  
**ARRASATEN ZABALDU BERRIA!!**

Biteri, 13  
Tfnoa: 79 21 71  
ARRASATE

Barrenkale, 9  
Tfnoa: 76 22 86  
BERGARA

## S. CARRASCAL S.L.

### Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

### Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tfnoa /FAX: 79 01 82



# “GAZTEOK BIZIKLETAN”

## VI. ARGAZKI LEHIAKETA

### 2 KATEGORIA

a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak.

b) 19-35 urte bitarteko edozein.

### MODALITATEAK

Zuri-beltz eta koloretan.



Informazio gehiagorako:  
**GAZTE ZERBITZUA**  
**77 00 65**

### SARIAK

a kategoria:

- 1. 20.000 pta
- 2. 15.000 pta

b kategoria:

- 1. 50.000 pta | Koloretan
- 2. 25.000 pta

- 1. 50.000 pta | Zuri-beltzean
- 2. 35.000 pta

## LANAK AURKEZTEKO EPEA: URRIAK 11



LAN BILA BULEGOA  
ALDIKAKO LAN ENPRESA

# ERAÑA

*aholkularitza*

Orain, “LAN BILA” enpresaren delegazio bezala, zuri egokitzen zaizun lana aurkituko dizugu:

- ADMINISTRATIBOAK
- INFORMATIKOAK
- KOMERTZIALAK
- IDAZKARITZA
- TEKNIKARIAK
- ERAIKUNTZA
- INDUSTRIA...

**Benetan zure asmoa lan egitea bada...**

**Zatoz eta informa zaitez!!**



Jokin Zaitegi enparantza, 6 (Roneoko etxeak) • Tfnoa: 79 83 95 • Faxa: 79 79 07 • ARRASATE



# Udaletxeko harmarri berrian katerik ez

**D**onostiako "Network" publizitate agentziak Arrasateko Udala-  
rentzat egin duen irudi korporatibo berriak hainbat zeresan ekarri du. Agentzia honek Arrasateko aintzinako harmarrian oinarrituta diseinatu duen harmarri berrian ez dira lehengoan zeuden kateak agertzen eta hainbatek faltan bota ditu.

Dena dela, proiektu berri hau ez dago oraindik onartuta eta gainera, harmarri zaharra ez da desagertuko, harmarri bakoitzaren irudi korporatiboa harreman desberdinetarako erabiliko da eta. Irudi korporatibo bakoitzaren aplikazioa zehaztuko duen arauen manuala ere egin barik dago.

## Kateak kentzearen arrazoia

"Network" agentziako langileek azaldu duten moduan, aintzinako harmarrian oinarritu dira harmarri berria egiteko. Zaharrean agertzen diren elementuak




Network taldeak egindako irudi berria.

errespetatuz baina moderno-agoa da oraingoa.

Herensugea mantendu egin da, herriaren ezaugarri mitologikoa delako eta baita gaztelua ere, Santa Barbarako gaztelua izan daitekeena hain zuzen. Irudi berri-gazteluaren bi alboetara dau den haritzak agertzen dira, harmarri zaharreko goialdeko koroa eta behealdeko bi ibaiak.

Irudi korporatibo berrian agertzen ez direnak harma-

rri zaharrak zituen kateak dira. Kate horiek arrasatearrrek Navas de Tolosan izan zuten partehartzeagatik erregeak egin zien oparia dira eta horregatik erabaki du "Network" agentziak kate horiek kentzea, euren ustez ez dutelako Arrasateko elementurik adierazten. Gainera, katek Arrasateko historiari ez dakarkiela ezer eta estetiko-ki indarra kentzen diotela azaldu dute publizista donostiarrek.



Harmarri zaharra.

Maritxu  
nora zozuz?  
Ispilura,  
jakina!

Olarte kalea, 45  
Tfnoa: 79 67 84  
ARRASATE

Elkar ikusko pingu

JAI-ZALE  
TABERNA  
OLARTE 3



M

aritu Kajoi jaiak hemeretzi urte besterik ez dituenez, ezin ba berari burusko oso argazki zaharrik argitaratu. Zutikako argazkian, Arrasateko plazan, ezkerretik eskumara: **Luis Pagoaga, Juan Bautista Agirre, Agustin Ibarluzea eta Rafa Etxabe.** Orain hamar urte ateratako argazkia da, 1985ko urrian. Ez da izugarritzko kontzentrazioarekin begiratu behar orain ikusteko baino kilo batzuk gutxiago eta ile gehiago zutela orduan. Denbora ez dela alperrik pasatzen!

Hurrengo urtekoa da ondoan dagoen argazkia, Bergarako Altos Hornos-en ateratakoa Citroen zaharren ondoan. Protagonistak ia berdinak, ezkerretik eskumara: **Juan Bautista Agirre, Agustin Ibarluzea, Luis Pagoaga, Fernando Arana, Judit Uribarren eta Rafa Etxabe.**



PEDRO LUIS



PEDRO LUIS

# EKAITZ TABERNA

Ekaitz taberna, osasuna eta kemena



# Z E R N A H I A G O ?

## Maria Nieves Perez Botika-laguntzailea



- **Zer behar da botika-laguntzailea izateko?** Ikasketak eta bokazioa.
- **Zein da botika garestiena?** Trasplantatutako pertsonendako jarraiko tratamenduak eta hormonak; 38.000 ptatik gora balio dute.
- **Eta merkeena?** "Juanolak", 70 pta. balio dute.
- **Garai honetan zein botika saltzen da gehien?** "Frenadol" eta aspirinak.
- **Botika-laguntzailea ez bazina, zer izango zinateke?** Ileapaintzailea.
- **Baduzu alergiarik?** Bai, ileapaindegietako produktu eta tintei, horregatik utzi nion lan hari.
- **Botikak, orokorrean, garestiak iruditzen zaizkizu?** Ez.
- **Griperako zein da botikarik onena?** "Frenadol" eta "Couldina".
- **Konpetentzia asko dago botiken artean?** Ez.
- **Botikek etxeko sendabideak atzera bota dute?** Ez dut uste, jendeak etxeko sendabideak erabiltzen jarraitzen du.
- **Ezagutzen duzu bateren bat?** Bai; esnea eztea eta aspirinarekin.
- **Ezagutu duzu inoiz epidemia kasurik?** Bai, gripea eta lehen diarreak.
- **Guardia egiten duzunean nola pasatzen duzu denbora?** Ez dut gaueko guardiarik egiten.
- **Maritxu osteko bixamonarako badago botikarik?** Nire ustez Udalan ondo gosalduta eta lo egitera joatea da botikarik onena.
- **Izan duzun azken gaisotasuna?** Hernia diskala daukat.
- **Maitasun minetarako botikarik balego...** erosi egingo nuke.

## LABURRAK

### Euskal Dantzen ikastaroa

Zabalik jarraitzen du Arrasateko Udalak eta Lore Gazteak dantza taldeak elkarlanean antolatutako Euskal Dantzen ikastaroak.

15 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta urriaren 20tik abenduaren 15era bitartean egingo da. Izenemateak Gazte Bulegoan. Plaza mugatuak.

### "Gazteak Bizikletan" argazki lehiaketa


Oraindik aurkez daitezke lanak "Gazteak Bizikletan" VI. Argazki Lehiaketara. Zuri-beltz nahiz kolorekoak izan daitezke eta epea urriaren 11an amaitzen da. Bi kategoria daude: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak b) 19-35 urte bitarteko edozein.

### Liburua salgai

AEDko lehiaketetan sari-dun suertatu ziren lanekin borobildutako "Arrasate 94 Lehiaketak/Jokin Zaitegi VIII. Itzulpen Laburren Sariketa" liburua salgai dago Hire eta Gorabehera dendatan. Prezioa: 1.000 pta.

Eta orain, bisita ezazu gure galtzen sail berria.

**NEREA**  
A r r a s a t e



Dotoretasunak gauza txikietan datza.






• ESAERA •

“Arimak gauza gutxi  
behar du, gorputzak  
berriz, asko”

HERBERT

• JEROGLIFIKOA •



Gipuzkoako hiria?

• GURUTZEGRAMA •

|    |   |    |    |    |   |    |    |
|----|---|----|----|----|---|----|----|
| 1  | 2 | 3  | 4  | 5  | 6 | 7  | 8  |
| 9  |   |    |    |    |   |    |    |
| 10 |   |    | 11 |    |   |    |    |
| 12 |   | 13 |    |    |   |    |    |
| 14 |   |    |    |    |   |    | 15 |
| 16 |   |    | 17 | 18 |   | 19 |    |
| 20 |   |    | 21 |    |   |    |    |

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Zarugalde kaleko liburudenda. 9. Edonola. 10. Esnatu aurretik. 11 (Ald.) Galtzarbe, besape. 12. Ebatzi. 14. Ohore. 16. (Ald.) Dei-hitza; txo, itsaldean. 17. Bi magnituderen arteko erlazioa. 20. Alfabeto grekoko 13. letra. 21. Gaueko hegazti harraparia.

**Bertikalak** 1. Gasteizko festetako pertsonaia. 2. Animatu. 3. Errepikatuz lelo. 4. Azahostoak biltzen diren buru. 5. Zapererik ez duena. 6. Janaria eman edo hartu. 7. Garraio-zerbitzurako automobila. 8. Emakume izena. 13. Latinezko esaldietan erabiltzen da. 15. Elektrikoki kargaturiko atomoa. 18. Sexu maskulino duen animalia. 19. (Ald.) Bat eta bat.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Trankil, beti izango zara amartxoren umetxoa.

**Taurus** Lanari neurria hartu behar zaio, bestela...

**Gemini** Bai egin ezazu barre, bihar negar egin beharko duzu eta.

**Cancer** Zure bizitza sentimentala erabat aldrebestuko da.

**Leo** Txokolatea jatea komeni zaizu. Ea goxotzen zaren!

**Virgo** Gorputzaren itxura aldatzeak ez dizu mesederik egingo.

**Libra** Poesiak idazten hasiko ei zara. Maiteminduta ala?

**Scorpio** Eta zer moduz gutxiago gastatzen hasten bazara?

**Sagitaris** Modu horretan ez duzu aurrera egingo, lan gehiago egin behar da.



**Capricorn** Ameslaria izatea ondo dago. Ilusioak izatea...

**Aquarius** Betaurrekoak jarri dituzunik mundua beste era batera ikusten duzu, ezta?

**Piscis** Gauza guztietara berandu iristen zara. Turborik ez duzu?

# Etxe-Aundi

Torreauzo, 9  
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90  
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,  
**EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!**  
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorníu



TELEBISTAREN TXOKOA




## “Nor Nori Rock”: Arrasateko musika taldeak

Datorren asteazkenean Joseba Lasak zuzendu eta Kaitin Allendek eta Lierni Uribarrenek aurkezten duten “Nor Nori Rock” musika saioa hasiko da. Gaueko 9.30etan ikusi ahal izango duzue programa berria eta Arrasateko taldeak izango

dira nagusi. Mad Shadows, SS-77, Iskanbila eta Heriotza taldeek emandako zuzeneko kontzertuetako kantak eskainiko dira asteazkeneko saioan. Ez galdu aukera; Arrasateko musika taldeak ez dira txantxetarakoak eta!

KOMIKIA



Naiara. Ixa-ixa komiki taldea

PROGRAMAZIOA



9 ASTELEHENA

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
“Mondrasport” Itxaro  
Zubillagak eta Esti Loitik  
aurkeztuta.

10 ASTEARTEA

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30  
“Barrelekaixoka”  
umeendako programa  
Eider Otxoak aurkeztuta.

11 ASTEAZKENA

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
“Nor Nori Rock” musika  
programa Kaitin Allende  
eta Lierni Uribarrenek  
aurkeztuta.

12 OSTEGUNA

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Dokumentala: “Eskeleto  
baten bila”

13 OSTIRALA

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
“Astebete” Maria  
Agirrek aurkeztuta.

## Etxe-Aundi

1. PLATERA

*Bi plater aukeran*

*Etxeko gosoteria*

2. PLATERA

*Haragia edo arraina*

*Etxeko ardo gorria eta beltza*

*Kafea*

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

## UGARTE

Industri  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
Telefax: 793412

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1.Zabalera, 9. Edo-  
zelan, 11. Altxa, 12. Erabaki, 14. Dedu,  
16. Or, 17. Rato, 20. Nu, 21. Urribi.  
Berrikalak: 1.Zelidon, 2. Adoretu,  
3. Bo, 4. Azaburu, 5. Lela, 6. Elika-  
tu, 7. Taxi, 8. Ana, 13. Ad, 15. Ioi,  
18. Ar, 19. Ip.  
Jergofitkoak:  
Iruñ.



**Etxebizitzak**

- **Bi lagun behar dira Donostian pisua osatzeko.** Merkea! Tfnoa: 79 47 35. Patxi.
- **Bi lagun behar dira pisua osatzeko.** Tfnoa: 79 11 85. Eguerdietan edo gaueetan.
- **Pisu baten bila nabil Arrasaten.** Tfnoa: 79 05 63. Gauez.
- **Gasteizen bi logela alokagai.** Tfnoa: (945) 27 86 79.
- **Etxe partikular batean logela bat alokatzen da,** Eskola ondoan. Nahiaz gero pentsio osoan. Tfnoa: 79 40 53.
- **Lagun bat behar da pisua osatzeko Bilbon.** Tfnoa: (94) 416 93 06. Maribel.
- **Donostian pisua osatzeko lagun bat behar da.** Tfnoa: 45 10 17.
- **Erdialdean 70 m<sup>2</sup> ko pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Lotarako jendea hartzen dut.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Bergaran 50m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai,** berritua eta oso prezio interesgarrian. Tfnoa: 71 53 49. Gaueko 8etatik 10etara.
- **Pertsona bat behar da** Donostian pisua osatzeko. Tfnoa: 79 47 58.
- **Arrasate edo inguruan pisua alokatzeko** lagun bat edo biren bila nabil. Tfnoa: 71 49 07. Dei egin goizeko 10.30etatik 11etar. Gaika.
- **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Garaje itxia alokatzen da Larrea inguruan.** Tfnoa: 79 69 41. Juli.

**Lana**

- **Ludi Berri musika taldea** zure etzetan, banakete, kintada edo jaialdian jotzeko gertu. Tfnoak: 77 00 95 (Juan Luis Lekunberri) edo 77 11 63 (Jose Luis Arregi).
- **Klase partikularrak ematen ditut,** edozein gai. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 31 48.
- **OHOko klase partikularrak ematen ditugu.** Tfnoa: 77 04 98.
- **Ileapaindegi batean lan egiteko estetizien bat behar da.** Tfnoa: 79 87 62.
- **Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko andra bat gertu dago.** Tfnoa: 79 97 03.
- **Andra euskalduna** umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Klinika eta geriatrian** esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 09.
- **Psikologian lizentziaduna** klase partikularrak edo laguntza berezia emateko prest. Tfnoa: 79 86 28.
- **Injinerutzako ikasleak** OHO, BBB eta LHko eskolak ematen ditu. Tfnoa: 79 16 19.
- **Zuzenbidean lizentziadunak** OHO, BBB eta ingelesezko klase partikularrak emango lituzke. Esperientzia eta talde txikia. Tfnoa: 79 28 80.
- **Emakumea gertu umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko.** Esperientziaduna. Tfnoa: 79 28 80.
- **Frantziar batek frantsesezko klase partikularrak** ematen ditu. Tfnoa: 79 35 95.
- **Jatetxe batean zerbitzaria eta sukalde laguntzaile esperientziadunak behar dira.** Tfnoa: 71 43 45.

**Salerosketak**

- **Formato erdiko Zewza-Bronika** markako argazki makina salgai. Tfnoa: 77 12 28. Jabi.
- **Bigarren eskuko jangela,** 6 aulki, aparagailu bat eta ispilu bat. Tfnoa: 79 76 50. Gaueko 9etatik 10etara.
- **Citroën 2CV salgai.** Interesatuak dei egin gauez 77 13 11 tfnora. Lurdes.
- **Opel Corsa salgai.** (SS-Z). Oso egoera onean eta kilometro gutxirekin. Prezioa: 350.000 pta. Tfnoa: 76 0 7 87.
- **Vespa Iris 200 salgai.** Tfnoa: 76 08 51.
- **Bibolin 1/2 salgai.** Soka markakoa eta egoera onean. Tfnoa: 79 25 85.
- **Gauerako bost akumuladore** elektriko salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 79 87 90.
- **Rondaia talde baterako soinujolea behar da.** Tfnoa: 79 71 21.

**Denetarik**

- **Grupo San Juanen larruzko giltzaria** aurkitu nuen "Bodet Sistemas" dauka idatzita. Tfnoa: 79 37 63.
- **Katu bat agertu da, grisa,** atigratua, emea, urte edo urte t'erdikoa, katai gorria txintxinarekin dauka. Tfnoa: 79 15 13.
- **Kutzak duela urte batzuk perretxikoen lami-nak** atera zituen. Horiek erostea gustatuko litzaidake. Etxean baduzu eta saltzeko asmoaz bazaudu dei egin 79 80 31 tfnora. Ondo ordainduko dut. Tomas.
- **Gasteizera egunero** goizeko 8etarako joan behar baduzu eta tokia baduzu dei egin. Tfnoa: 79 61 19

**Aste Gazte**

**Bekak**

• Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzak, ikertzaileak, ebaluatzaileak eta dokumentalistak, hezkuntza mailan prestatzeko beken deialdia. Lizentziatuei eta dokumentazioan diplomatuta daudenei zuzenduta. Epea: Urriak 20

• Errioxako Gobernuak, musika, arte eszenikoa, ikusentzuneakoak... beken deia egin du. Artistei zuzenduta. Epea: abenduak 30.

**Lana**

• Alonsotegiko Udalak, gizarte laguntzaile lanpostu bat kaleratu du. Epea: urriak 11

• Ortuellako Udalak, bi peoi behar ditu. Epea: urriak 11.

**Ikastaroak**

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak, alpinismo ikastaroa antolatu du, ingurune arkaitzean. Tokia: Midi D' Ossau. Prezioa: 8.000 pta. Egunak: urriak 12, 13, 14 eta 15ean. Beharrezkoa da federatuta egotea

gehigarri internazionalarekin.


• "Urtxintxa" atsedendikoko hezitzaileen eskolak, hainbat ikastaro antolatu du 95-96 ikasturterako. Zuzendaria, heziketa sexuala, abenturako begiralea, heziketa berezia, ludotekak, ingurugiro heziketa, gazte dinamitzailea. Prezio eta egutegi desberdinak. Epea: urriak 14.

**Lehiaketak**

• "Gazteok bizikletan" VI Argazki lehiaketa. Bi kategoria: a) Deba garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak; b) 19-35 urte bitarteko edozein. Zuribeltz zein koloretan, gehienez, 3 argazki. Epea: urriak 11.


**"Ez dut ikusten nire burua gazteek duten martxarekin"**

**MARTIN FIZ  
KORRIKALARI  
GASTEIZTARRA**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**





# Arrasateko OSASUN GIDA

## **ALBAITARIAK**

ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ..... ☎79 15 31

## **ALERGIA ETA ASMA**

ATXEN ARANZABAL Olarte, 43 ..... ☎79 81 00 / 79 81 11

## **DENTISTAK**

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎79 95 60

ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90

GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis..... ☎79 73 88

IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45

LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ..... ☎77 12 63

## **ENTZUMENA, SUDURRA, EZTARRIA**

ZULUETA ETA NAVARRO DREAK (Arratsaldetan), Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎79 20 18

## **FISIOTERAPEUTAK**

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .... ☎77 03 96

## **GINEKOLOGOAK**

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ..... ☎79 20 18

## **LOGOPEDIA**

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ..... ☎79 79 46

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎79 48 77

## **MASAJARIAK**

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ..... ☎77 06 22

## **MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK**

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎79 44 22

## **MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK**

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABAETA..... ☎79 55 25

## **OPTIKA**

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ..... ☎79 25 98

LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎79 29 95

## **PSIKOLOGOAK**

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎79 48 77

## **REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA**

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1..... ☎77 00 40





UNITED COLORS  
OF BENETTON.

Maialako Errabala, 13 ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE